

Ebazpena: R6/2024

Espedientea: 58/2022

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 30a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honako hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak, eta Soffía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabaki dute:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) gatazka aurkeztu du Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren (ZAEA) aurrean, zeinaren helburua baita zehaztea SGRESAk 2019an eta 2020an ordaindu zituen dibidenduetan ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kontura egindako atxikipenen soberakinak itzultzeko eskumena. Atxikipenak SGSEk eskatu zituen, establezimendu iraunkorrik gabeko zergadun ez-egoiliar jakin batzuk ordezkatzuz. Gatazka hori 58/2022 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari da Arbitraje Batzorde honetan.

AURREKARIAK

1.- SGRESA sozietateak Bizkaian du egoitza fiskala; hala, Bizkaiko foru-araudiaren mende dago sozietateen gaineko zergari dagokionez, eta BFAn ordaintzen du zerga osoa. Dena dela, SGRESA zerga-baterakuntzako talde baten parte da; talde hori Bizkaiko foru-araudiaren mende dago, baina BFAn eta ZAEAn ordaintzen du zerga, lurralde bakoitzean egiten dituen eragiketen bolumenarekin proportzioan.

2.- 2019ko eta 2020ko ekitaldietan, SGRESAek dibidenduak banatu zituen, eta zegozkien atxikipenak egin, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kontura. Bada, BFAn eta ZAEAn sartu zituen zenbatekoak, talde fiskalak egindako eragiketen bolumenarekin proportzioan.

3.- SGSEk, establezimendu iraunkorrik ez duten zergadun ez-egoiliarrek ordezkatzuz, ekitaldi horietako ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren autolikidazioak aurkeztu zituen BFAn, SGRESAen balore-gordailuzain gisa, SGRESAek bere ordezkatuari egindako atxikipenen soberakinak itzultzea eskatzeko.

4.- BFAk uko egin zion eskatutako zenbatekoak itzultzeari, ulertu baitzuen ez zeukala horretarako eskumenik, bat etorrita Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunaren 22.Lau.b) artikulua hiru garren paragrafoarekin (maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsi zen Ekonomia Ituna), SGRESA talde fiskal batekoa zelako, talde horrek zergak BFAn eta ZAEAn ordaintzen zituelako eta SGSE ZAEAREN ikuskapen-eskumenaren mende zegoelako.

5.- 2021eko maiatzaren 5ean, BFAk ZAEARI jakinarazi zion ez zeukala eskumenik eskatutakoak itzultzeko, eta, hilabeteko epea igaro zenez ZAEAK erantzun gabe, BFAk gatazka planteatu zion Arbitraje Batzorde honi 2022ko uztailearen 1ean.

6.- Gatazka prozedura arruntaren bidez izapidetu da, eta, beraz, bete egin da ZAEAK alegazioak egiteko eta frogatzea eta dokumentazio egokiak aurkeztu eta proposatzeko izapidea. ZAEAK izapidea betetzeko epea luzatzeko eskatu ondoren, azkenean, amore emanda, onartu egin du SGSEk eskatutako itzulketak egiteko eskumena duela.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arbitraje Batzordearen eginkizunak ezartzen baititu:

- «a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

- b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea».

2.- Amore ematea.

Interesdunik eta, bereziki, zergapekoa bera aurkeztu ez denez, ZAEAk amore emateak, SGSEk eskatutako itzulketak egiteko eskumena onartuta, bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratzea eragin du; hortaz, Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea bideratzen ari zen prozeduraren xedea gerora desagertzea eta, ondorioz, artxibatzea ekarri du.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

1.- Gatazka artxibatzea, ZAEAk amore eman izanak prozeduraren xedea gerora desagertzea ekarri duelako, SGSEk establezimendu iraunkorrik ez duten zergadun ez-egoiliarak ordezkatzuz eskatutako itzulketak egiteko eskumena duela onartuta.

2.- Jakinaraztea honako erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta SGSEri.